

## NOLA SORTU ZIREN TXERRIAK??

Orain dela urte asko, txerriak ez ziren existitzen, bakarrik animalia batek lortu zuen txerri bihurtzea: basurdea.

Egun batean, basurde bat bere lagunekin jolasten zegoela, bultza egin zioten nahi gabe, eta basurdeak, mendekua hartuta janaria lapurtu zien.



Hurrengo egunean, bere lagunak etsai bihurtu ziren eta basurdea bilatzen ari ziren bitartean, basurdeak maitagarri batekin topo egin zuen. Maitagarriak desioko lepokoa eman zion eta basurdeak ezer jakin gabe jantzi zuen.

Bere lagunak basurdea aurkitu zuten eta basurdeak desiatu zuen (ez aurkitzeko) bere ilea kentzea. Lepokoa bat-batean distiratu zuen, eta basurdeak ilea galdu zuen. Etsaiek ez zuten ezagutu eta... joan ziren. Basurdea, ospatzeko, arrosa arrosen zelaira joan zen. Beraien kolorea gustatu zitzaion eta lepokoa arrosa kolorekoa bihurtu zen.

Afaltzera joan zen, eta sustrai gozo bat aurkitu zuen zorte onez. Sustrai jatera jooan zen, baina ez zen konturatu harri bat zela, eta hozka egin zion. Hotzik gabe gelditu zen, eta afaldu gabe loak hartu zuen.

Hurrengo egunean, olentzero baino lodiago esnatu zen, eta zorte txarrez, bere etsaiek aurkitu zuten, baina berak ezin zuenez korrikarik egin, ipurdian malguki bat edukitzea desiatu zuen, ihes egiteko. Ihes egiten zuen bitartean, lepokoa galdu zitzaion, eta jarraian txintxeta baten gainean erori zen eta husten joan zen. Malgukia txiki-txikia gelditu zitzaion arte.

Azkenean, baserri batera joan zen bizitzera eta han oso pozik bizi izan zen.

## AMAIERA

